*INFORMAZIO-ORRIA 2.zkia*

## 2009/12/03 MAHAI OROKORRA

**GOBERNUAREN 22. ARTIKULUA KENTZEAREN EZETZAREN AUREAN MAHAI OROKORRA DESEGIN EGINGO DA.**

CC.OO AURREKONTU LEGEAREN AURREAN ERREKURTSOA JARTZEKO AUKERA AZTERTZEN ARI DA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA ASKATASUN SINDIKALEN AURKA EGITEAGATIK

Gaurko bileran administrazioak CC.OOk 2009. urteko Aurrekontu Legearen Aurreproiektutik 22. artikulua ezeztatzearen proposamena ukatu du.

Honen aurrean, CC.OOk euren eskaintzari uko egiteaz gain, ez duela 22. artikuluaren onarpena ezin besteko baldintzatzat hartzen duen hitzarmenik izenpetuko adierazi du.

CC.OOren usteetan gobernuaren jarrera onartezina da bileran aipatutako hainbat arrazoi direla eta:

1. 22. artikuluak lan baldintza baten (norberaren gaiengatiko baimenarena, zenabat behar duten zehazten du - urtean 6 - eta hauen berreskuragarri izaera) erregulazioa aldebakarrekoa eta nahi den modukoa izatea eragiten du. Hau ez zegoen Administrazio Orokorraren, Ertzaintzaren ez eta garbitzaileen kolektibo eta Hezkuntzako Departamenduko Sukaldaritzaren baimen eta lizentzien barne bilduta. Horregatik, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan eta Langileen Estatutuan aipatzen den moduan, negoziazioen gai izan behar du honek.
Honekin Administrazioak Negoziazio Kolektiborako Eskubidea urratzen du, Askatasun Sindikaleko Oinarrizko Zuzenbidean funtsezkoa den elementua.

2. Euren irizpidea Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuan 48.1.K) artikuluaren menpe eta horrela jurisprudentzaren irizpidepean uztearen konpromezua 22.artikuluak ez du betetzen. Gaia epailearen baitan dagoen bitartean ezin du aldebakarreko erabakia hartu jurisprudentzi erabaki irmoa egon arte

22. artikuluaren inposaketarekin negoziazioaren fede onaren printzipioa urratzen da Langile Publikoaren Oinarrizko Estatuturen arabera nahitaezkoa dena.

3. Administrazioak ez du Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua errespetatzen Espainiako Parlamentuan onartutakoa beste batzuen artean EAJren babesarekin.

4. Administrazioak bere Administrazio Orokorreko kolektiboko langileak diskriminatzen ditu Ertzaintza eta Garbiketa eta Sukaldaritza bere baitan eta Tokiko eta Foru Administrazioen baitan dauden beste kolektiboekiko alderdi politikoek Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartu dutenean (Udalihitzen 2008/2010, EAJk bakarrik sinatutakoa)

5. Gobernua (eta bereziki lehendakariordea buru duen Funtzio Publikoko Kontseilaritza) Euskal Administrazio Publikoetako langileriaren lan baldintzen ezhomogeneizazioa gertatzen uzteagatik arduraduna da eta ondorioz euren langileriari kalte egiten dioten Toki eta Foru Administrazioekiko konparaziozko bidegabekeria indibidual eta kolektibo eta baita zerbitzuak eskaintzaerakoan horrek izan ditzakeen ondorioen arduradun ere.
Gobernuak, eta bere izenean lehendakariordeak, Administrazio Publikoko kontseilari izaeran, Euskal Administrazio Publikoetako langileriaren lan baldintzen homogeneizazioa (batez ere ordainsariena) ematen saiatzen den Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko Xedapen Gehigarrietako Zortzigarrena ez du betetzen
Kontrakoa egiten du:

- Gobernuko langileriaren kaltetan baldintzen ezhomogeneizazioaren saiakera. Batez ere, ordainsarien arloan, 2006. urtetik zulo galanta ireki da soldata eskaintzaren aurrean Mahai orokorraren aldetik jasangaitzak direnak adostitakoa baino baxuagoak izaetagatik.

- 22. artikuluarekin ukatu nahi zaien eta Eusko Jaurlaritzako kolektiboen mesedean den Eudelen, Bizkaiko Diputazio Foralean eta Bilbaoko Udaletxea bezalako erakundeetan EAJk egindako akordioek suertatu duen lanaldiaren arazoaren konponketa ekidin Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 48.1.k) artikulua aplikatuz.

- Auzitegien aurrean eskubide bat eskatzeagatik langileriari eraso egin diote, iritzi publikoaren aurrean pribilegiatuak direla esanez eta gero euren alderdiko kudeatzaile publikoek beraien tesiko, eta ez CC.OOreneko, pribilegio deritzonak banatzen diru publikoaren kontura. Koherentzia piska bat ondo letorke.

6. Administrazioak borondate txarrez jokatzen du euren langileek (eta sindikatuak) egindako erreklamazioagatik, 2000. urteko ekainaren 28ko 35 orduko lanaldiaren ingurko akordioa ez dutela betetzen salatzen duenean. CC.OOren ustetan Langile Publikoaren Oinarrizko Estatuturen aplikazioak ez du ez-betetzea adierazten, bain hala izanda ere, arduradun politikoak eta

PNVko kudeatzaileak izan dira1592 orduko erredukzioa beste leku batean adostu dutenak.

Horregatik, CCOOren esanetan, artikuluaren ezeztatzearen ukoa eta Auzitegien epaia ez onartzeak akordioen sinatzea galarazten du.

CCOOrentzat Administrazio Autonomiko eta Tokiko eta Foru Administrazioen artean ordainsarien eta lanaldien inguruan suertatu den egoera jasanezina da eta ezin da 1992-94 urteetakoa bezalako homogeneizazio plan batekin konpondu, horrek ez duelako administrazioak beteko duela ziurtatzen. Bai ordea, sektore publikoko langileentzat (laboralak, funtzionariak eta estatutarioak) komunak diren lan baldintzen erregulazio homogeneoa bermatu eta landuko dituen interadministrazioetako mahai baten testuinguruan Langile Publikoken Oinarrizko Estatutuko 36.3 artikuluak finkatu duen moduan. CCOOk hori proposatuko du arloko gai komunen eta sektorialekin euren gaiekiko eztabaidagaiekin oraingo Mahai Orokorarrekin bateragarria izango den negoziazio kolektiboa egon dadin.

CCOOk eskura dituen neurriekin, 2009ko Aurrekontu Legearen 22. artikuluaren onarpenari aurre eta negoziazio kolektibo osoa eman dadin presioa egiten jarraituko du.